



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: AUTOEN ETA ITSASONTZIEN BATEZ
BESTEKO SALMENTA PREZIOAK ONARTZEN DITUEN FORU DEKRETUAZ,
ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN
GAINEKO ZERGAREN, OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO
ZERGAREN ETA ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIAREN
ONDORIOETARAKO.**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, jakitearren zer iritzi duten egitekoa den xedapenaren eraginpean izango diren herritarrek eta ordezkartza erakundeei; xedapenak arau esparru berri bat ezarri nahi du, eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari eta zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziari loturiko zenbait alderdiri buruz.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, urtarrilaren 24ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Hauei buruzko foru arauak: ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga eta zenbait garraio bideren gaineko zerga berezia.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Onestea autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak, ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Prezio horiek onetsi beharra dago eta egokia da, aipatutako foru arauak horietara jotzen dutelako.
HELBURUAK	Aipatutako zergen ondorioetarako salmenta prezio horiek onets daitezzen, aipatutako foru arauetan jasotako ondorioetarako.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago beste aukerarik zergaren oraingo egituraren arabera.